

· MOTZ-MOTZ PEDRO AGIRREGOMEZKORTA ENPRESARI ELGOIBARTARRARI KORTA SARIA EMAN DIOTE
· ERREPORTAIA MAKINA ERREMINTAREN 22. BIENALA · GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN

BARREN

ASTEKARIA

19 enpresa elgoibartar Bilboko
makina erremintaren ferian

22

BIEMH

INSKRIBATU GABEKO PROFESIONALAK 10 €
PROFESIONALES NO INSCRITOS: 10 €
NON REGISTERED PROFESSIONALS 10 €

↓
PASE KOLEKTIBOAK
PASES COLECTIVOS
COLECTIVE PASSES

INSKRIBATUTAKO PROFESIONALKI SARRIN
SOLO PROFESIONALES INSCRITOS
REGISTERED PROFESSIONALS ONLY

↓
PUBLIKO SARRERAK
ENTRADA PUBLICO
PUBLIC ENTRANCE

EL GOIBARTARRARI KORTA SARIA · 2002ko martxoaren 15o/A · ASTEKARIA

thiruzunoren begi ezkutua

Izarren hautsa



lehenengo aldia...
mendian gora zoaz, nekeak itota,
pausoak kontatzen, eta arnasak
badirudi melodia torturatzailer bat
sortzen duela... eta zu nekaturik,
unaturik... noizean behin aurrera
begiratzen duzu hodeiertza non eta noiz
kausituko...

azkenean... izugarritzko parajea, arnasa sakon
hartu eta halako harrotasun batek elikatzen zaitu, egarri
zara baina minutu batez begiak itxi eta goiak sentiarazten
dizuna barneratzen duzu... zeure onera itzultzen zarenean,
norbaiten zoriontzea nahi zenuke, besarkada bat, egindako
esfortzuaren saria... bakarrik zaude...

nora doaz izerdi tantak... zein norabidetan eman ditut
pauso nekezak... mendiek ez dizute erantzuten, txorien
kanturen batek zure arreta bereganatu nahi du, baina zuk
ahots baten peskizan jarraitu nahi duzu...

izar batek begi bat kliskatu dizu... lehenengo aldia beti
da lehenengo...

Ainhoa Lendinez

MENDAROKO UDALEKO JAUNTIXOEI

Otsailaren 16an DV egunkariak, Mendaroko kartan, 2002rako Mendaroko Udalak (PNV) onartu dituen aurrekontuen berri ematen zuen. Argi clago jauntxo hauek nahi dutenerako dirurik badutela: Euskal Bizikletarako 39.000 euro (6.500.000 pzta), udaletxe berria garbitzeko 30.000 euro (5.000.000 pzta inguru ! !!) eta bestaldetik, kultura, euskera eta hezkuntzarako udalaletxea garbitzeko bideratutakoaren bikoitza baino ez. Benetan datu lotsagarria iruditzen zaigu.

Gainera, Mendaroko Udalak Gazteleku baten proiektua aurrera daramala dirudi. Gurekin izaadako bilera batean aitortu zuten bezala, J.M. Linazasorolce eskolak okindegi bilakatzea sekulako hutsegitea izan zen eta diru pila ederra alferrik galdu zen orduan. Gaztelekiaren asmoek ere bide berbera daramatela uste dugu. Orain artean Gazteleku baten beharraren inguruan eztabaidatzeko Udalak antolatu dituen bileretara agertu izan garen bakarrak Gazte Asanbladakoak izan gara, eta gazteok autogestionatutako Gaztetxe baten beharra alclarrikatzeke. Anton Zubiaurrek esana digu "que no representffis a la juventud de Mendarep": Gaztelekuarena bezalako proiektu batekin noren eskaera betetzen duten galdetu nahi genioke. Guk behinik behin Gazteleku hori BOIKOTEATUKO dugula argi daukagu, guri sekula lokal egoki bat eskeini ez eta beraiei bururatutako eta Mendaroko gaztediaren inongo onarpenik ez duen Gazteleku hori eraikitzeke diru mordoia gastatzeko prest daudelako. Egia da herri bakoitzak merezi dituen agintariak clituela.

Udaleko jauntxoekin izan genuen azken bileran "que no tenfan locales" esaten ziguten, Euskal Herriko hizkuntza apala den gaztelera zuzen batean. Orain, berriz, Gazteleku martxan jarri nahi dute.

Udaleko jauntxoei, BARREN astekaria irakurtzen badute behintzat, herriari erantzun publiko bat eman diezaioten eskatuko genieke.

Mendaroko Gazte Asanbladaren
izenean
J.E. 15386271

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
:17 943 74 41 12
Publizitatea:
xr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maira:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATUILEA
Egurbarrio izarra

Litedarmen Elgoibarko Udala ZUZENPANA 9i Arzpuru
KAZETAIIII« irati Agirreazaldege, Asier Orbea PUHLMATEA
Amaia Erkrze ILIAKZATZIROJII. I kor Diego ADMISTRAZICIA
Amaia Rodrigez GERENZIA Jon Peli Uriguen
KOLIBORATZMLEAK.knhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pollo
Mendizabal, Juan M. Elustonclo, Alborito Ansualegi,
Edume Bilbao, Gotzon Arrieta, Lerea Perez de Afbeniz,
Jokin Maranez, krionlso Arregi, Juanito Gorostiza,
Ainhoa Andonegi, Koket K.E. ela Urruzuno
AZALEKO EMERA 7111ARRA Gotzon Garateren tbundik
INPRIIIATEGL4Gettu Koop. E. TIRPOK 4.025 ale tese
GORIMILUA 35-1.035/92 ISSN 1139-1855

Efe

ELGOIBARKO IZMIA
KUZTO. ■11,ALT+4

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurtaritzako Kubura Sailak
eta Fort Alclundiak diruz lagundutako aldizkaria.



zigx kutxa

1DANOBAT
urruums indinAlkOnk

£11 60 IT I
6RL11.0 DANOSal

ETARTA



- **Urasandi auzoan** bizi den emakume gazte bat etorri zaigu BARREnera normalean **aparkatzeko arazoak badituzte, asteburuetan** zailtasunak bikoiztu egiten zaizkiela esatera: "Almach del mueble'urrean auto guztiak espaloian egoten dira larunbatero. Kalea arratsaldeko 4etatik hurrengo egunera arte isten dutenez, lehen aparkatzea zaila bazen, gero eta zailtasun gehiago ditugu".



- Asteburuetan kotxeak ez aparkatzeko herrian jarritako **lorontziak errespetatzen ez direla-eta**, hiru gizonezko proposamen bat egin nahi diote Udalari: "Kotxeak edozein lekutan aparkatzeaz gain, zerrikeria asko lagatzen dute lorontzietan. Beraz, kendu eta pibote edo antzeko zerbait jartzeko eskatu nahi diogu Udalari".



- Bi mutikok **Ikastola ondoko tailerra garbitzen ari direnak txalotu** nahi dituzte: "Egunero pasatzen gera hortik eta lehen zauan egoeria ezagutu eta gero, eskertzekua da pertsona hauek ein dabena". —0—

IIEmakume batek, txalotzeaz gain, eskerrak eman nahi dizkio **Erretxindin ume kotxe baten estalkia aurkitu eta, norbaitek ikusteko, zintzilik laga zuenari**. Horrela, posible egin baitzuen jabeak "kapotea" aurkitzea.

Barreak, Birrak eta Barreak



Te {ruelle

"Jendea bienalaren eboluzioa ikusteko zain dago irailaren liko atentutuen ostean"

- **Langile Kopurua:**17
- **Enpresaren sorrera:** 1990. urtea.

• **Produkzioa:**
Hauspoak aluminiozko pertsiak, biribilkagailuak eta babesgailu espi-ralak.


41Esportatzen duzue: %30a.

"Konpetenziaren berri izan eta norberaren produktuak hobetzeko balio du **Bienalak**.

Garrantzitsuena, ordea, produktuen imagina saltzea da" azaldu digu Itziar Telleria, Tecnifuelleko gerenteak. "Gure produktuek ez dute teknologia handia eskatzen, baina materiale eta zuntz berriak erabiltzen ditugu nez, bezeroen beharretara moldatu behar gara". Bestalde, Bienalean ez dela erakusten diren produktuen zuzeneko salmentarik egiten aipatu digu, eskariak hitzartu baizik.

Bienala irailaren Ilko atentatuen ondorioak ikusteko baliagarria izan daitekeela aipatu digu, "inpass une baten aurkitzen gara. Atentatuen ostean produkzioak eta eskariek geldiune bat jasan zuten. Badirudi berriz lehengo egoerara bueltatzen ari garela eta Bienala Iana berriz aktibatzen den ikusteko gune eta une egokia izan daiteke. Jendea Bienalaren eboluzioa ikusteko zain dago".

Azken 5 edo 6 Bienaletara etorri dira eta eboluzioa nabarmena izan dela aitortu arren, hobetu daitekeela esan digu, "Paris eta Alemaniako ferietatik ikasteko asko dugula uste dut, zerbitzuetan, esaterako. Bestalde, Barakaldora pasatzen garenean, instalakuntza hobekak izango ditugula dinith



Bonces Garitano

"Bienalean kontaktuak egiten dira, baina klienteak feria ondoren egiten dira"

- **Langile kopurua:** 23 langile.

***Enpresaren sorrera:** 1975. urtea.

4⁵Produkzioa: material ez ferrikoak: brontzeak, plastikoak, aluminioak, kobrea, latoia... eta matrizeetarako osagaien banaketa. Bordignon matrizeriako zilindroak Espainiaratzeko inportatzaile eskusiboa da.

• **Esportatzen duzue?** %20a. Italia, Eslovenia, Alermania. Portugal eta Marokora.

Faustino Garitano, Bronces Garitanoko gerentearen iritziz, lehenengo kontaktuak egiten dira Bienalean, "baina klientiak postferian eitzen dia. Gure ka suan Espainia guztixan ezagutzen gaitxue eta Bienala esportazio arlorako baliagarria zaigu". Izan

ere, Bienala asko zabaldua dagoela eta atzerritarren presentzia **gero eta** nabariagoa dela esan digu, "hasierako ferixetatik azkenekora demaseko diferentzia dao. Hasieran Espainiatik bakarrik hurbiltzen zan jendia; oin berriz, mundu guztitxik". Guztira 35 herrialdeetako 1.143 espositore atzerritar aurkeztu dira azokan, parte hartu duten enpresen %64a, alegia. Bestalde, irailaren Ilko atentatuen ondorio kaltegarririk ez dutela izan azaldu digu, "sektore asko ikutzen ditxugu eta batzuk behera ein daben arren,

beste batzutan ez da igarri edo trokelerixian kasuan moduan, gora ein dau.



2-gropte* Oarikinia
34sregahr S.L.
4-Camoid S.A.
5-D.5 Sistearrn
6-Dinehed Taldea
7-Deftscs
41-Eateci
94Aff
IthEstorta Roctiffeedons
II• Etxe-Tor S.A.
12-GE Faiews Aufsmatiort hpolice
13- Goilek System
S.C.
1,5-Koadio
16914«ser Autaffirdiftssos
17-Preepie1QR
18-Tereaudie S.A.
Urkvido

Martxoaren 11tik 16ra bitartean ospatu da Makina-Erremintaren 22. Bienala. Aurtengocor Bilbon egingo den azkena da, hurrengoa Barakaldon egingo balta. Guztira 1.793 espositore bildu dira Bilboko erakustazokak dituen 42.131 meiro karrafuetan eta enpresa elgoibartarrek ordezkari za zabala izan dute, Elgoibar makina-erremintaren hiriburua dela ezin baitezakegu ahaztu. Irailaren 11an New Yorken gertatutako atentaluen ondorioak indusirian eta ekonomian izan duten eragina neuritzeko adierazie egokia izan daitekeela uste dute aditu askok. Gai hau ekr beste batzuk aztertu ditugu Bienalera aurkeztu diren 19 enpresa elgoibartarretako batzuekin.

Danobat

"Gure potentzialaren berri emateko erakustoki aparta da bienala"



- **Langile kopurua:** 844 langile (Danobat Taldea)
- **Enpresaren sorrera:** 1952. urtean.
- **Produktzioa:** Torrioak, fresadorak, artezgailuak, makina bereziak, zerrak eta punzonadoreak.
- **Esportatzen duzue:** %78 a. Alemania, EE.BB eta Frantzia.

Miguel Angel Mujika, Danobateko Teknikari Komertzialak azaldu digunez, "Makina Erremintaren Bienala oso garrantzitzua da guretzat. Elgoibar makina erremintaren hiriburua izanik eta Danobat sektoreko Espainiako liderra, gure potentzial guztixen berri emateko erakustoki aparta da". Orain arteko Bienal guztietan egon da ordezkari Danobat. Bilboko Espainiako feriarik onena dela esan digu Miguel Angelek, "kanpotik jende asko etortzen da, batez ere Europatik, eta garrantzia hartzen ari da nazioarte mailan ere". Danobaten produktuak 3 sektore-merkatu handitara bideratuta daude: ekipo ondasunak, automozioa eta aeronautika-energia ekoizpena. "Irailaren 11tik aurrera makina-erremintaren sektoria behar bezala egin dau, baina guk espero baino gitxio" esan digu Miguel Angelek. "Gainera, urte erditxik aurrera berriz gorantz hasiko ote dan esaten dabe. Sektore batzuk motelduta daudela ikusten dia, baina beste batzuk berriro hasi dia martxan, aeronautika edo energia ekoizpenaren sektoria esaterako". Urtea eskari kopuru handiarekin hasi zuen Danobatek eta 2002 urterako helburu nagusietako bat fakturazioa gehitzea da.

{ondia

"Enpresa barruko helburu batzuk betetzeko erreferentzia giza hartzen dogu bienala"

- **Langile kopurua:** 105 langile.
- **Enpresaren sorrera:** 1952. urtea
- **Produktzioa:** Zentro mekanizatuak, fresadorak.
- **Fakturazioa:** 21'5 milioi euro.
- **Esportatzen duzue?** %55a.

"Produktu berriak eta bakoitzak egin daban lana erakusteko balio dau Bienalak" esan digu Joseba Konde, Kondiako gerenteak. "Horrez gain, helburu batzuk betetzeko erreferentzia gisa ere hartzen da Bienala". Kondiak zehaztasun handiko zentro mekanizatu bat aurkeztu du aurretik eta diseinurik onenen sarietara aurkeztu dute, "90ean hasi zian sari hauek ematen eta lehenengo ediziva guk irabazi gendun. Kasu hontan diseinuak ez dake estetikakin zerikusirik. Ergonomixia eta langilian segurtasunarekin lotura gehixo dake diseinu berritzaile honek". Josebak aipatu digunez, ez du kausa efekturik ikusten irailaren 11ko atentatuak eta ekonomiaren egoeraren artean, "atentatuak aurretik krisixa bazetorrela ikusten zan, ekonomia ziklikua da-eta. Azken 4-5 urtiak onak izan dia eta logikua zan behar bezala bat gertatzea. Gure

■suan ez dogu helburu estrategikorik aldatu biharrikan izan. Irailaren 11a baino lehen Iparameriketara gaizki ari ginan adanik eta oin okerrara, besterik gabe". Bestalde, Elgoibar eta inguruetako **makina erremintaren I ndarra**, kontzentrazioan datzala aipatu digu, "Itziarretik Plaentxira 20 kilometrotan kontzentratuta da makina-erreminta. Hau oso lagungarria da subkontratazibak eitzeko. Euskal Herrian eta Taiwanen bakarrik ematen da enpresa kontzentrazio hau".




AGME enpresako Pedro Agirregomezkortak Joxe Mari Korta saria jaso du

Enpresa munduan egindako ibilbide onagatik eman diote saria

Jean den martxoaren 7an banatu zituzten Gasteizen duela bi urte hil zuten Joxe Mari Korta enpresariaren omenezko sariak. Korta sarien lehen edizioak 6 enpresari euskaldunen ibilbide profesionalak hartu zituen kontuan. Sarietako bat Eibarren kokatutako makina-erremintan lan egiten duen AGME enpresako Pedro Agirregomezkorta enpresari elgoibartarrak jaso zuen. Enpresaren ibilbidea saritu nahi izan dute eta bereziki, Pedoren lana.

35 urte lanean

AGME 1948an sortu zuen Pedro Agirregomezkortaren aitak, eta berak, 1966an, 23urterekin ekin zion lanari. 35 urteren ondoren, asko aldatu da enpresa,



Bilboko makina-erremintaren ferian aurkitu genuen Pedro, bere enpresa ordezkatzan

esportazioetan gehienbat; % esportatetik %65 esportatzera iritsi baitira. Hala ere, Pedro Agirregomezkortak esan digunez, "sari honetan zeresan haundixa euki dabe familixiak, ni aguantau naualako eta lantegiko pertsonalak, eurek gabe enpresia ezingo zalako aurrera jun". Bilboko makina erremintaren ferian egon ginen Pedorekin eta berarentzat ilusio handiko saria dela aipatu zigun, Jose Mari Korta oso ezaguna zuelako "gizon haundixa zan benetan, bai enpresari moduan eta baitxa pertsona bezala ere. Ilusio haundixa ein ditz sari honek".

Karakateko miradorea eta aisialdi gunea inauguratu dituzte

Mahai panoramiko batean, Euskal Herriko mendi tontor nagusiak eta toki interesgarriak markatu dituzte

Jean den larunbatean, martxoaren 9an, inauguratu zuten Karakate mendiaren tontorrean ipini duten miradorea. Bertan mahai panoramiko bat, mahaiak eta iturri bat ere jarri dituzte. Debako Arte Eskolan egin duten mahai panoramikoak Elgoibar eta Soraluze banatzen dituen mugan kokatu dute. Dolmen itxurako hiru harriren gainean kokatutako brontzeko biribila da, erliebean egin dago eta bertatik Euskal Herriko mendi tontor nagusiak eta inguruko toki interesgarriak ikus daitezke: baserri auzoak, itsas ertzeko erreferentziak. , Miradoreaz gain, mahaiak jarri eta Mandoiturriko ingutua ere konpondu dute.



Mahai panoramikoak Elgoibar eta PThentxiko mugan kokatu dute

Turismoa bultzatzen Karakateko miradorea egiteko asmoa Soraluze eta Elgoibarko Udaletatik atera zen. Debegesa elkarteari ideia aurkeztu eta Debabarreneko Turismo Dinamizaziorako Planaren baitan eraman da aurrera. Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak ere babes eman dio proiektuari. Miradoreak 10.000 euroko aurrekontua izan du eta honi mahaien kostua gehitu behar zaio. Hau izan da Debabarreneko nekazal ingurua turistatik bultzatzeko proiektuetariko bat eta laster bidezidor sare bat jarri nahi dute.

2002-III-8

Britainia Handia, Bulgaria, Alemania eta Holandatik etorritako 12 irakasle egon dira Elgoibarko Institutuan

Pasa den martxoaren 6tik 10era bitartean herrialde desberdinetatik etorritako 12 irakasle jardun dute lanean Elgoibarko Institutuan. Lauaxeta ikastetxeko beste irakasle batekin batera, hizkuntzak erakusteko modulo digital batzuk ekoiztea izan da beraien lana. Gero, amaitutakoan, proiektua, "Dietion" proiektua alegia, interneteko sarean erabiltzeko aukera egongo da. Elgoibar BH Institutua lantzen ari den modulua lan mundura bideratuta dago: komunikabideetan agertzen diren lan eskaintzak, curriculumak nola egin...



Pahd Aidabaidehaeku, Elgoibarko Maldn-arrenintaren Fmodazioko Ichendakarki hi da


Makina-erremintaren Bienalaren inaugurazioaren bezperan, pasa den domekan, mundu horretan esanguratsua izan zen gizon bat hil zen, Patxi Aldabaldetreku debarra, alegia.

Duela pare bat urte elkarrizketa bat egin genion Patxiri "Makinak eta gizakia: gida historikoa" liburua idatzi berri zuelako. Aidabaldetrekuk bizia makina-erremintaren munduari eskaini dio. BARRENetik, makina-erremintaren azoka edo bienalaren astea izan den honetan, omenaldi txiki bat eskaini nahi diogu Patxiri.

San Pedro eta Lerun arteko zubia udarako amailuko dute

San Pedro auzoko azken etxeetatik orain gutxi berritutako lokal sozialera bitartean eraikiko dute 50 metro luze eta 4 metro zabal izango dituen zubia. Metalezko egitura izango du eta altzairuzko sei kablek eutsiko dute. Hauek, berriz, San Pedro auzoaren ertzean kokatutako sei

zutabetara lotuta egongo dira. Lanek 465.165 euroko aurrekontua izan dute, lanak egiteko lurra erosi behar izan dituelara kontuan hartuta. Udaletik adierazi dutenez, udarako zubi berria eraikita egongo da, eta honen ostean, erreka ertzean zuhaitzak landatuko dituzte.



CHERK1 IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

943 82 01 09 Faxes: 943 82 01 82

Indalezo Olanguren 2, behea 20600 EIBAR



ITURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2. 3.sotoa v 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK PINTAKETA

Bilbon izan den makina-erremintaren ferian, Elgoibarko 19 enpresak hartu dute parte. Baina...

BA AL DAKIZU ZER EGITBI DEN MAKINA-ERREMINTAREN SEKTOREAN?



CARLOS FERNANDEZ
57 urte, mantenirrendua

30 urte egin ditut makina-erreminta munduan lanean eta soberan ezagutzen dut. Bilboko ferian ere egon izan naiz, baina badira 7 urte joan ez naizela. Orain, beste arlo batean nago.

ARRATE ARMENDIA
40 urte, irakaslea

Koinatuak bertan lan eitzen dabalako ezagutzen dot mundu hori eta Elgoibarren holako erakusketak eitzeko ohitura handia daualako. Puntan daozen tailer asko daoz herrixan.




JONATHAN MARTIN
16 urte, ikaslea

Ez dakit eta ezta bienala zer den ere, baina badakit feriak eta horrelakoak egiten direla. Danobat eta horrelako enpresa batzuk mundu honetan lan egiten dutela uste dut.

DANI ESCALANTE
29 urte, igeltseroa

Teknologiaren innobazioa da. Berrikuntzak erakusten dituzte, gero makinak berritzeko. Orain gutxiago badago ere, Elgoibar izan da industria honetako zentroa.



ANE ARMENDIA
33 urte, irakaslea

Erramintak eitzen ditzuzten makinak lantzen ditzue. Bi urtian behin makinak erakusten dibutze. Ez naiz behin ere egon baina senarrak hortan lan eitzen dau eta gertutik ezagutzen dot.

ANA GARCIA
17 urte, ikaslea

Ez dakit eta ez dut behin ere entzun. Ez dakit zein enpresa dauden horretan. Ez dut nire burua hortik bideratzeko asmorik eta ez dut horretan interesik jarri.



9011. 7v
rg

tot40* 1f14 4.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Anchústegui



Sanyfer

**ZERAMIKAK
ETA ETXERAKO
TRESNERIA**

Olaso industrialdea
Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

Gazti BARRen

NAIZ

G A Z T I E G E H I G A R R I A 2002ko martxoaren 15a. X urtea/397. zia

"Beste taide batzuen abestixak jofzen
ditxugulako jarri genion inivertion izena taldiari"


in.vertion musika taldea

(BLUES IS MY BUSINESS)

LARRY McCRAY

Miebiganetik etorrita Euskal Herrian izan dugu aste honetan Larry McCray bluesniana. Gibson Flying V-a besapean zuela bere azkeneko diskoa aurkeztu zuen Bilbon eta Donostian, "Blues is my business". Arkansasen jaioa, McCrayk Clara arrebarengatik jaso zuen serkordentranako afizioa. Izan ere, harnahiru urte zituela berak oparitu baitzion lehen gitarra. Clara McCray gitarjolea zen eta anaia txikiak herari dedikatu dio lan herri hau. Gitarjole eta abeslari estatu hatuarrak General Motors auto etxearen lantegi batean lan egiten zuen 1999fiera arte. "Ambition" estraineko diskoa izan zen lana uztearen erruduna, sekulako arrakasta izan baitzuen. Dagoeneko, argitaratzen duen laugarrena da "Blues is my business". Ez du blues klasikoa egiten, McCrayk roeka eta bluesa nahasten haititu. Abesterako orduan suul ikutu handia du eta talde osoaren soinua hiziki garaikidea da. Wah-wah pedalari ematen dion bakoitzean, aldiz, Jimi Hendrix bera gogora ekartzen digu. Teknika handiko musikarta da Arkansasekoa. Bilbon eta Donostian anata Steve haterian (diskoan ere bera da hateri jolea) eta Johnny B. Gayden baxuan izan ditu lagun. Azken hau duela urte dezente Albert Collins handiarekin izan zen Euskal Herrian. Blues garaikidea eta osu melodikoa da musikart atsegin honek egiten duena. Dudarik gahe. eaur egun Estatu Batuetatik datorren blues eskaintzarik erakargarrienetakoa da Larry McCrayk dakarkiguna.

Ion Gurrutxaga



In-vertion musika taldea

"Taula gainera igotziak, pentsagehixao Ematen dabala kontu"

HARITZ ARRIETA, AITOR AZKUE, GAIZKA ETXANIZ, ANDER MUJICA, AITOR ROSARIO ETA JON ZALDUAK OSATZEN DUTE "1N-VERTION" MUSIKA TALDEA. 16 ETA 18 URTE BITARTEAN DITUZTE. IMH EGUNA OSPATZEKO ABESTI BATZUK JENDAURREAN JOTZEKO ESKATU ZIETENEAN SORTU ZEN TALDEA. IZAN ERE, OTSAILAREN 22AN, JO ZUTEN ESTRAINENKO ALDIZ JENDAURREAN, IMHKO KAFETEGIAN. ORAINGOZ BESTE TALDEEN BERTSIOAK BAKARRIK JOTZEN DITUZTE, BAINA NORK DAKI EGUNEN BATEAN BERAIEK SORTUTAKO ABESTIAK BESTE TALDE HASIBERRIENTZAKO BALIAGARRI IZANGO OTE DIREN



3tzEn gEnduna baino ErrEspEto iatu gEra"

-Zergatik "In-Vertion" izena? Jotzen ditzugun abesti guztixak beste talde batzuen bertsiak dialako.

-IMHko egunean jo al zenuten lehen aldiz jendaurrean? Bai, jendia animatzeko abesti batzuk jotzeko eskatu ziguten lagun talde bati. Bakoitzak gogoko zitxuan abesti batzuk aukeratu eta bertsiak jotzen genitxun. Orduantxe sortu zan "In-Vertion" taldea.

-Nolako esperientzia izan zen? Emozionantia. Taula gainera igotziak pentsatzen genduna baino errespetu gehiago ematen dabala konturatu ginan. Lagun arteko kontzertu bat izango zala pentsatzen gendun eta lasaia joko gendula, baina jende asko egon zan eta nahiko nerbioa aritu ginan.

- Taldekideetako batzuk beste talde batzutan jotzen duzue. ezta? Bai, 3 taldetako jendia batzian ondorioz sortu dogu "In-Vertion". Taldeko 6 partaidiok

"Lurgor", "Gabe" eta "Ladislacion" taldietan jotzen gendun, bakoitza bere estilo propiakin. Danok entsaiatzen gendun lokal berdian, Zazpiki irraxian albuari, eta txikitatik ezagutzen geranez, elkartzia erabaki dogu.

-Zer moduz moldatu zarete estilo ezherdinak gustuko izanik? Oraingoz nahiko ondo, jotzen ditzugun bertsiak ere estilo desberdinetan

kuak dia-eta; Incubus, Su Ta Gar, Nirvana... Gure asmua ez da talde serixo bat montatzia, baina gogukin hartu dogu, musikia izugarri gustatzen jaku-eta.

-Instrumentu bat baino gehiago menderatzen du bakoitzak, ezta? Bai, taldeko 4 kidek adibidez, 3 instrumentu jo genitxun eman dogun kontzertu bakarrian. Danok gera solfeotik pasautakoak eta doinuak ateratzeko orduan erraztasun edo entzumen gehixao dakagu.

-Gustatuko al litzaizueke zuek sortutako abestiak jotzea? Bai, noski, baina oraindik ez dugu astirik eduki. Entsaizteko astirik apenas euki dogu, azterketak amaitu berri baititugu.

-Zein dira zuen talderik gustukoena? Entsaizteko lokalien ditzugun argazkiak eta posterak ikusi besterik ez

dago; Metallica, Su Ta Gar...

-Non gustatuko litzaizueke kontzertu bat eskaintzea? Donostiako belodromoan jotzia izango zan gure atneta. Hala ere, baditxugu proiektu txiki batzuk epe laburrera. Mendaron pare bat aste barru joko dogula uste dot eta Gaztetxian ere baliteke jotzia. San Bartolome jaixetan gainontzeko Elgoibarko taldeekin jotzeko proiektu bat ere badao.

KORAPILOALE

I

T


entazioak" liburu arrakastatsuen ostean, Jasone Osorok

"Korapiloak" izenburuko kaleratu zuen iaz. Beasaingo "Igartza" literatura beka akzesita jaso ostean, idazle elgoibartarrak bere arrakasta berretsi zuen lan berri honekin, besteak beste, apirilean Donostian izandako liburu azokan, berea salduena izan zelako eta horri esker "Zilarrezko Euskadi" saria jaso zuen.

17 ipuin eta beste horrenbeste poema biltzen ditu "Korapiloak" izenburuko lanak. Halere, "Tertzioak" liburuaren aldean, hemen ipuinak "korapilatuagoak" ageri dira, elkarren artean nolabaiteko lotura dute. Batzuetan absurdoa agertzen bada ere, orohar istorio guztiz postmodernoa direla iruditzen zait. Gizarte postmodernoa honetako egoerak, kontzeptuak, uhjektuak... hartu eta haiekin jokatu du bere ipuinetan Jasonek, bai edukian eta baita estiloan ere. Edonola ere, istorio gustagarriak idatzi ditu elgoibartarrak liburu honetan.

3

Jon Eugi



BarREN 3

Hezkuntza ertaineko milaka ikasle atzera zirenen kalera pasadun martxoaren 7an, Espainiako Gobernuaren Hezkuntzaren Kalitate Legearen aurka protesta egiteko. Elgoibarren, IMH, Ikastola eta Institutuko ikasleek greba egin zuten. Ikasle eta amaierako azterketak bat pasabeharra aurrekustendun lege berriak, beste hainbat berrikuntzaren artean. Ikasleen iritzia zein den jakin nahi izan dugu.

Batxilergoa amaitzerakoan azterketa bat pasabeharra; Batxilergoko Froga Orokorra. Azterketa gaitzitu ezean, ezingo da batxilergo titulua eskuratu. Ikasleek 4 aukera izango dituzte froga gaitzitzeko. Selektibitatearen ordezkia izango da, eta ahozko azterketa jartzea aurrekustendun Hezkuntza Ministerioak.

LOGSE-ko edukiak ikasleen aukeren arabera banatzea. Hala, 3. mailan (14 urterekin) ikasleek 2 aukera izango dituzte: aukera tekniko eta profesionala, batetik; edota zientzia eta humanitateen aukera, bestetik. Hurrengo ikasturtearen amaieran, 15 urterekin, ikasleek bigarren aukera bat egin beharko dute. Hiru aukera izango dira: tekniko eta profesionala; zientziak; eta humanitateak.

Ikaslea, horietako bakar bat ere nahiko ez balu, lanean hasteko programa batean txertatzeko litzateke, praktika gehiagorekin. Ikasle

horrek ezingo du Batxilergoko Froga Orokorra egin, eta agiri berezi bat jasoko du.

LOGSEko ziklo bakoitzean ikasturte bana errepikatu dezakete ikasleek. Ondorioz, ikasle askok gaitzitu gabeko ikasgai pila bat izaten dituzte zikloa amaitzerakoan. Kalitate Legearen planak, ikasturte gehiago errepikatu ahal izatea proposatzen du; eta 3 ikasgai gaitzitzen ez dituen ikaslea ikasturtez ez pasatzea.

Egun, atzerriko lehen hizkuntza ikasten hasteko derrigorrezko adina zortzi urtekoa da. Lege berriarekin, 6 urtera jaitsiko litzateke adin hori.

Egun, ikasle baten kontrako neurriak hartzeak dituen zailtasunak eraginda, "justizia azkaneko baliabideak" ezarri nahi ditu Madrilek.

J3.....099900000•900

Inguruko Egunkari guztiak LANPOSTUAK sailkatuta ditugu.



» **IkasIE txartela,**
AterpEkidE
(albErgista) txartEla,
IrakasIE txartEla
GaztE txartEla

bErtan Egingo dizugul



gazte
informazioa.

KULTUR ETXEKO 2. SOLAIRUA NAFARROA PLAZA, 3 • Tel. 943 741 461 • E-maila: elg.gzerbitzua@terra.es
Astelehena - asteartea - osteguna - ostirala: 17:00etatik-20:00etara • Larunbata: 10:00etatik - 14:00etara

Ibon Alvarez eta Mikel Bakeriza, ikasleak

"Lege honekin, txikitatik klaseak ezarri nahi dituzte gizartean"

Mikel Bakeriza

Ibon Alvarez eta Mikel Bakeriza IMHko Proiektu Mekanikoen Garapeneko Ikasketen lehen mailan daude. 27 eta 22 urte dituzte. Azkenaldian Kalitatearen Legearen inguruan egiten ari diren protesten edo greben berri eman digute.

Zergatik egin zenuten greba pasa den astean?

Mikel: Kalitatearen Legearen aurka protestatzeko. **Estatu espainiarrak** Euskal Herriari inposatu nahi dion lege bat delako. Gure hezkuntzan sartu nahi dutelako eta gainera, inposatu, eta hori ezin dugu onartu.

Nahikoa informatuta al zaudete gai honen inguruan?

Mikel: Zoritxarrez, prentsaren eta telebistaren bitartez bakarrik. Bestalde, ikastetxeak ez gaitu informatzen. Irakasleak ere ez dira asko mobilizatu, pasibitatea ere badago, nolabait esateko.

Ibon: Nire ustez, irakasleak bai mobilizatu dira eta ikasleak ere bai.

Zer aldaketa nabaritu duzue zuen ikasketetan lege honen aurrera eginez gero?

Ibon: Ez die gure ikasketei bakarrik eragingo, orokorrean baizik. Ikasteko ni-belak ezarri nahi dituzte.

Mikel: Txikitatik gizartean klaseak ipini nahi dituzte: 14 urteko jendeak bere bidea erabaki behar du. Ikasmailaren arabera ikasleak banatzeak ere arazoak ekarriko ditu.

"Lege bat aurrera ateratzeko guztiek hitz egin behar dute eta ez batek pentsatzen duena bakarrik egin"

Ibon Alvarez

tu. Sektarioa iruditzen zaigu.


Zer eskatuko zenukete informazio gehiago edukitzeko?

Ibon: Legea zein den eta zer egin nahi duten zehatz-mehatz jakitea. Gero, horren arabera jokatu ahal izateko.

Mikel: **Ikastetxe** bakoitzean egon beharko litzateke informazioa, baina gero, ikasle bakoitzak garatu behar du informazio hori.

Gaur egungo hezkuntza sistema aldatu beharra al dago?

Ibon: Zerbait egin behar da, baina ez hain gogor. Lege bat aurrera ateratzeko guztiek hitz egin behar dute eta ez batek



Mikel Bakeriza, ezkerrean, eta Ibon Alvarez

pentsatzen duena bakarrik egin.

Mikel: **10 urtetik hona, jendearen emaitzak ez** dira hain onak. Emaitzak kaskarragoak dira, baina behar bada gizarteak ere badauka zeresanik horretan, eta aztertu egin beharko da.

Errebalida ezartzeak beldurra ematen al du?

Ibon: **Ez** da esaminagatik. Prestatuta egonez gero, azterketa egingo da. Arazorik larriena, txikitatik emango den banaketa hori da.

Mikel: Hezkuntza aldetik egin nahi dituzten mailaketa eta aldaketa hauek, azkenean, gizartean eragina izango dute.

Egokia iruditzen al zaizue lege honi "kalitatearen" legea deitzea?

Mikel: Beharbada bai. Azkenean, superperpersonak bilatzen dituzte eta horiek izatea gure gizartearen bultzatzaileak.

Aterako al da aurrera Kalitatearen Legea?

Ibon: PPK nahi badu, aurrera egingo du. Ahalegindu egin behar dugu hori ez gertatzeko.

Mikel: Nire ustez, "dekretazoa" egingo dute, baina protesta egin behar da.

lots@gabE

Guruzne Urkidi, Jokin Altuna eta Miren Bastidaren laguntzarekin egifen dugu atal hau. Parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri BARREnera. Animatut



@ Defini ezazu zure burua.
Beste guztien bizitza dakien, a baina berea ez.



<http://Nerea Gil@com> / 15 urte

@ Mutil lagunik ha al duzu?
Baaai!

@ Maitasuna lehen aldiz egiteko, zein adin da apropose-na?

- a. 14-16 urte bitartean
- b. 16-18 urte hitartean
- c. 18tik gora
- d. Ezkondu eta gero.

14 urte baino lehenago. Ahalik eta azkarren, hobe.

@ Eta non egingo zenuke? Gurasoen etxean, autoan, hondartzan...?

Beste nunbaitx. Ikastolan erdiko aretuan, adibidez.

@ Zer iruditzen zaizu "Operaciim Triunfo"?

Ja, ja, ja.

@ Joango al zineteke?

Bai, baina zurekin bakarririk.

@ Ba al duzu rik etxean?

Bai, ni bezalako beste hiru.

@ Zer iritzi duzu Kalitatearen Legearen inguruan?

Nerekin berba ein ondoren pentsatu zuten.

Zer esango zenioke pastilak kontsumitzen dituen pertsona hati?

Pasa batzuk.

@ Joango al zinateke Malagan egin duten bezalako festa hate-tara?

Ez, berriro ez, jun naiz-eta.

@ Stripper moduan lan egingo al zenuke?

Zuk eskatuz gero, bai.

@ Kontratatu al zenituzke boy haten zerhitzuak?

Ja, ja, ja! Noski baietz!

@ Juerga bat egiteko, zer duzu nahiago?

- a. Alkohola.
- b. Porroak.
- c. Ezer hartu gabe erc ondo pasa daiteke.

Hirurak.


LEPIIRKETO

HILABETE HONETAN "ORDA1NA ZOR NIZUN", JOXEMARI URTEAGAREN LIBURUA ESKURATZEKO HONAKO GALDERA HONI ZUZEN ERANTZUN BEHAR DIOZU:

MONGOO DO JOXEMORI URTEFIGO?

|BR BATeskurat.

Aurreko lihuruaren lehiaketako irabazlea Emilio Hernandez izan da. "baina bihotzak dio", Xabier Mon. toiaeren lihuru eskuratu du.



BARREnera eta EINARLANEAN arodaletsearen arteko kultur eskaintza da hau. rantionak BARREnera ekar ditzakernie edo Inaoian laga hamabost eguneke

ELI MORENO. PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA

"Jenthari sexologia anoikularitza, orientaziva brfnrilin 7FirIng eman nahi diogu 'Biluzikr-en'"



Psikologoa eta sexologoa da Eli Moreno, 27 urteko elgoi-bartarra. "Biluzik" sexologia zerbitzua zabaldu berri du. Gai honen inguruko zalantzak, sexologiaren inguruko zalantzak, alegia, ahal dituen neurrian argitzen saiatuko da.

Bere lehen egunean dituen asmoen berri eman zigun, eta haita tartean telefonoz egindako kontsultaren bati erantzun ere. Beraz, sexologia gaia tabua dela ahaztu eta edonork izango du aukera Elirekin hitz egiteko.

Zer da "Biluzik"?

Jendiari sexologia aholkularitza, orientaziva eta informaziva emateko zerbitzua da. Jendiak kezka bat dakanian ez daki nora jo; edo liburu bat hartu eta hitz teknikuekin ez da aklaritzen. Beraz, hona etorri eta nik beraiek ulertzeko moduan eingo diet berba. Bestalde, hainbat kasutan, haurdunaldi ez desiratu baten aurrarian edo tratatu txarrak jasaten dituztenian, askok ez daki nora jo, Holakuetan nik bideratuko nitxuzke, nora jun daitxezkeen esanez.

Zein asmorekin jarri da martxan?

Jende gaztiengan biharra ikusten gendualako sortutako zerbitzua da.

Zein informazio mota emango duzu?

Danetarikua. HIESari buruzkoa, antisorgailuen ingurukua, harreman sexuali buruzko informazio orokorra, emakumien gaiari buruzkoa. Biharren arabera egokitzea nahi dot zerbitzua.

Zein adineko jendearentzat dago irekita bulegoa?

Informaziva batez ere ikastetxietan eta tabernetan zabaldu da gazte jendiantzat. Baina garbi geratu bihar da edozeinentzat daozela atiak zabalik. Egongo dia kasu batzuk hemen ezingo dianak bideratu eta kasu horietan beste profesional batzuegana bialduko ditxugu. Gure nahixa profesionalen arteko sare bat sortzia da.

Oraindik zaila al da jendearen artean sexualitateaz hitz egitea?

Bai. Lotsagatik edo gai intimua iruditzen jakulako. Gai honi buruz brome-

tan eta katxondeuan berba eixia oso modan dao. Baina modu serio baten oso zaila da. Gainera, gure artian berba eixen ez dogunez, ez dakigu ondukuak gaixari buruz ze pentsatzen daban, eta gaizki ez geratziarren, ixildu eixen gera. Emakumiak oindiokan plazerrakin arazo haundixa dakagu eta mutilek, berriz, ez. Baina mutileri berdina pasatzen jakue afektibidadiakin.

Ezjakintasun handia al dago arlo honetan?

Gaur egun informazio pila bat dao, baina ez da nahikua. Jendiak oso informazio ona dakan moduan, informazio txarra ere jasotzen dau, eta dana nahastatzen dau.

Ikusten al duzu gabeziarik gaur egungo gazteriari ematen zaion sexualitateari buruzko informazioan?

Gutxi ematen da. Askotan nahiz eta gurasoek ahaleginak egin, lagunuen artian edo kanpoko norbaitxekin gehixao berba eixen dabe nerabiek. Ikastetxietan ere gai hau lantzeko arazuak izaten ditxuzte, beste gaixekin "topera" daudelako, arazo ekomonikoengaitxik....

Maizen egin ohi dizuten kontsulta zein da?

Gaztien artian galderak harreman koi-talen ingurukuak izaten dia: Zela prebenitxu daitekeen haurdunaldi bat, hurrengo eguneko pastilia.... Beraz, lan haundixa eukitzen dogu atentziva gai horretatik deszentralizatzen eta beste harreman mota batzuk daudela erakusten. HIESan gaixa adibidez, lehen ez bezela, oso urruti ikusten dabe oingo

gaztiekin. Jende gaztiakin lan eixterakuan topau izan dogu homosexuala edo heterosexuala dan argi ez dakan jenderik eta hoiiek kontsulta asko eixten ditxuzte.

Aurrera begira zein asmo dituzue?

Astelehenetako aholkularitza zerbitzua gain, beste ekintza batzuk aurrera eruatia ere pentsau dogu: Batxilergoko lehenengo mailako ikasleekin sexu heziketia, kondoiaren erabileraren inguruko kanpaina,... Gero Elgoibarko elkarte eta taldiekin ekintza komunak eixia ere gustauko jakun.

Zein harrera espero duzu?

Hasieran oso poliki juango dala uste dot. Baina konformauko nintzake astian pertsona bati erantzunez gero.

ZER DA "BILUZIK"?

Kultur Etxeko Gazte Informazio Gunean zabaldu berri den sexologia zerbitzua.

f.-711111.133111VA

Eli Moreno, psikologo- sexologoa.

ORDUTEGIA

Astelehenero, 17:00etatik 20:00etara.

KOITSULTAK EGITEKO

GI Gera bertara joan, Kultur Etxean, telefonoz deitu, 943 74 14 61era edo e-mailez:

biluzikzerbitzua@yahoo.com

kontzErtuak

MARTXOA

15 barixakua

BILBO

22:00 The Chevelers + The Nash

Azkena aretoa

16 zapatua

ELGOIBAR

18:00 Upset + 100 hongo

Gaztetxean

BASAURI

22:00 Amparanoia

Herriko plazan

BERGARA

20:30 Angra + Silent Force

Jam aretoa

BILBO

21:30 The Brontes + Ohglaucon

B ilborock aretoa

22:00 Nikki Sudden

Azkena aretoa

DONOSTIA

21:30 The Cranberries

Anoeta belodromoan

17 domEkia

OIARTZUN

20:00 Amparanoia

Pagoa aretoan

22 barixakua

BILBO

22:00 SOLO LOS SOLO

Azkena aretoan

ARANDA DE DUERO

22:00 Koma

23 zapatua

DONOSTIA

20:00 Van Morrison

Kursaaleko aretoan

13 zapatua

BILBO

Anarko

Azkena aretoan


26 barixakua

BILBO

22:00 Anarko

Azkena aretoan

"ez daki.t 6a, arraro ikasfen
orrazkera aklafla a i chaur



500 lagun inguru gerturatu dira Haizea Emakume Taldeak antolatutako "contemporary Art-Elgoiharera" erakusketa ikusten

Martxoaren 24ra arte izango duzue aukera herriko lau artisten lanak bilduta ikusteko

Pasa den martxoaren 7an, eguenean, eta Emakumearen Egunaren bezperan, erakusketa bitxia inauguratu zuen Haizea Emakume Taldeak Kultur Etxeko erakusketa gelan. Jende gehiena inaugurazio ekitaldira agertu bazen ere, 120 pertsona gutxi gorabehera, ez du iniziatiba honek ikusminik galdu. Lehen aste honetan, 500 lagun inguru pasa dira bertatik Ainara Etxeberria, Jasone Osoro, Ainara Garcia eta Alazne Gonzalez herriko artisten lanak ikustera.

Haizea emakume taldeak Elgoibarko esparru desberdinetako emakumeen sormen lanak jarri ditu ikusgai. Horrela, erakusketa gelan sartuz gero, Ainara Etxeberriaren hainbat koadro ikus ditzakegu, Ainara Garciaren argazkiak eta berak diseinatutako jantziak, Jasoneren "Isadora", "Korapiloak", "Jara", eta "Tentazioak" liburuak edo Alaznek diseinatutako zenbait lan, diapositibetan.

Astelehenetik larunbatera, 19:00etatik-21:00etara eta domeketan 12:00etatik-14:00etara dago zabalik erakusketa

Emakumeak gehien Erakusketara gerturatu diren 500 lagun horietatik gehienak emakumezkoak izan direla aipatu digu zaindaria. Bitxikeria gisa, herriko emakume artisten inguruko erakusketaren zaindaria gizonetzkoa da, Segundo Raigoso, alegia.

Aipamen liburua

Nahi duenak, Kultur Etxetik buelta bat eman ondoren, aipamen liburua sina dezake. Orain arteko sinaduretan zorianak emateko idatzi ugari ikusi ditugu eta baita neska hauei animoak ematekoak ere.

Erakusketa, astelehenetik larunbatera, 19:00etatik-21:00etara bitartean egondo da zabalik eta igandetan, 12:00etatik-14:00ora bitartean, martxoaren 24ra arte.



Erretratuan, zutik, inaugurazio egunean modelo lanetan ibili zirenak, erakusketako 3 artistarekin

Alboka folk taldeak Herriko Antzokian joko du martxoaren 22an

Emanaldia gaueko 22:15ean hasiko da

Alboka euskal folk taldea Elgoibarren izango dugu datorren ostiralean, martxoaren 22an. Herriko Antzokian eskainiko duten emanaldia 22:15ean hasiko da. Folk talde euskaldunak, kaleratu duen hirugarren diska aurkeztuko du, "Lorius" deiturikoa. Bertan abesti tradizionalak zein itxura berrikoak bildu dituzte.



Mundu mailako arrakasta

Bost urteren ostean, "Lorius" lanarekin entzulegoa harritzea lortu dute eta zuzeneko emanaldiei heldutasuna eta indarra ezarri diete. Euskal kultura eta komunikabide esparruetan ere entzumena lortu dute; eta ez Euskal Herrian bakarrik. Urtarrilean, Glasgow hirian izan ziren, "Celtic Conections" mundu mailako musika zeltiar jaialdi ospetsuan eta izugarrizko arrakasta lortu zuten.

Kantaldirako sarrerak 5,25 euro balio ditu eta aurrez eros daitezke Kultur Etxean, bertara joanez, 7:30etatik-15:00etara bitartean, edo telefonoz, 943 74 43 66 zenbakira deituz.

Sarrerak 5,25 euro balio du. Aurrez eros daitezke Kultur Etxean.

PERRO MARI EGAÑA ETA JESUS MARI IRIONDO, HAIHIIJASOTZAILEAK

Duela 27 urte jokatu zuten apustua

Mintxeta baserriko Pedro Mari Egañak (54 urte) eta Sanson baserriko Jesus Mari Iriondok (49 urte) harrijasoke desafioa bota zioten elkarri 1975. urteko maiatzaren 17an, Azkoitiko frontoian. 5 minutuko 3 tandatan 9 arroko (112'5 kilogramo) harriari nork altxoldi gehiago eman tzon zen jarri zuten joko. Egañak, harrijasotzen arituagoa zenez, harri kubikoa altxatu behar zuen (altxatzeko zailagoa) eta Iriondok, berriz, errektangularra. Iriondo nagusitu zen eta jokoan zeuden 25.000 pezetak berarentzat izan ziren. 27 urte beranduago, apostu hura gogora ekarri nahi izan dugu 2 protagonistekin.

-Nork bota zion desafioa nori?

Egaña: Zeinek bota zaban desafixua ez naiz akordatzan, baina garai hartan beti alkarrekin ibiltzen ginan, baitxa tailerrian ere.

Iriondo: Bixok San Lorentzo bailarakuak gera. Egañak aina indarrik zakan gizonik ez zauala bailara guztixan esan zian Egañan koadrilako batek. Igual egongo zala erantzun nion nik, jokua ein bihar gendula, eta baietz nik irabazi. Orduan oin baino apostu gehixao eitzen zian eta holaxe sortu zan.

-Zergatik bakoitzak harri ezberdina?

Egaña: Pisu berdina euki arren, harri kubikua altxatzeko zaila da. 5 urte zaharraua eta harrijasotzen ibilixa nintzanez, bentajia eman nion gehixo nitzalakuan, baina gitxio izan. Berak ere



Jesus Mari Iriondo
"Sanson"

ez zaban marka handirik ein, baina nik gitxio, eta irabazi ein zian.

-Zenbat denbora izan zenuten entrenatzeko?

Egaña: 3 edo 4 hilabete. Aurretik alkarrekin ibiltzen ginan, baina gero aparte, bakoitza bere aldetik ixilik. Holakuetan ez da komeni kontrarixuak norberan entrenamenduen berri izatia.

-Biok elgoibartarrak izanik, zergatik jokatu zen Azkoitiko Plazan?

Iriondo: Kiroldegirik edo tapautako frontoirik ez zauan Elgoibarren eta Azkoitxin jokorako afizio asko zauanez, hantxe eixia erabaki genduan.

-Zenbat urte zenituzten? Eta zer pisu bakoitzak?

Egaña: Nik 27 urte eta 80 kilo.

Iriondo: 22 urte eta 98 kilo.

-Katedra zeinen alde atera zen?

Iriondo: 300 ikusletik gora hurbildu zian apustua ikustera eta faboritua Egaña zan.

-Noiz hasi zineten harrijasotzen?

Egaña: Soldadutzatik etorri nintzanian, 21 urtekin. Osaba bat nakan harrijasotzen ibiltzen zana eta haren bitxartez hasi nintzan.

Iriondo: Apustu hau zala-eta hasi nintzan. Aurrez aizkoran ibiltzen nintzan.

-Nola entrenatzen zineten?

Egaña: Astian pare bat aldiz mendixan ibili ta ezer gutxi gehixao. Oin dana



Pedro Mari Egaña
"Mintxeta"

diferentia da, jan asuntua, gimnasivak... dana zaintzen da.

-Desafio gehiagotan hartu al zenuten parte?

Egaña: Bai, beste baten. Irulegi erreizildarrari jokatu nion 8 arroako kubikuakin. Hobeto preparautu jun nintzan, baina ni baino gehixao izan zan. Apostu gehixaorik ez naban jokatu, baina 40 urtera arte jarraitxu naban harrijasotzen. Gero gaztiak entrenatzen hasi nintzan. Lehenengo Mendaroko Sarubekin eta gero beste batzukin. Gaur egun "Egi" elgoibartarraren entrenatzaila naiz.

Iriondo: Gerotxuao Egañan osabakin ein naban apostua, baina galdu ein naban.

-Harrijasotzeak ba al du etorkizunik?

Egaña: Oin daon moduan ez diot etorkizun handirik ikusten. Aizkoria adibidez, asko mejourau da azken aldixan, batez ere, telebistan laguntziari esker. Akaso, harrijasotziak antzerako laguntzaren bat biharko dau.

Iriondo: Badaude harrijasotzaile gazte batzuk, baina zaila da ateratzia. Lehen, baserrixan eta mendixan biherra eitzen zaben pertsonak izaten zian. Gaur egun, lan gogor hoiek makinek eitzen ditxue.

G4 pilotarik hartu zuten parte 11. Pilota Egunean



Jende z gainezka egin zuen Ikastolako frontoiak V. Pilota Eguneko gaztetxoek arteko pilota partidak ikusteko. Guztira, 6 eta 14 urte bitarteko 64 neska mutilek hartu zuten parte jaialdian eta 16 final jokatu ziren. Tanto ederrak ikusteko aukera izan zuten frontoira hurbildu zirenek eta partehartzaileek ere gozatu ederra hartu zuten.

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 16

16:30 Elgoibar B - Zestoa (1. erreg.)

Igoera fasea

18:15 Elgoibar - Aurrera Vitoria (Neskak)

Domakia, 17

12:00 Elgoibar - Urola (Kad.)

16:30 Elgoibar - Ikasberri (Jub.)

ESKUBALDIA, Kiroldegian

Zapatua, 16

15:45 Pagoaga Elg. - Ereintza (Kad. neska.)

17:15 Unceta Elg. - Ereintz (Jub. neska.)

Domakia, 17

12:15 Tecnifuelle Elg. - Portugalete (Senior mut.)

ARETO FUTBOLA, kiroldegian

Barixakua, 15

22:15 Lanbroa Elg. - Gailurrerantz (1. maila)

SASKIBALDIA, kiroldegian

Zapatua, 16

19:00 Elgoibar S.T. Arrasate

ESKU PILOTA, Ikastolan

Barixakua, 15

21:30 Lagunak (3) - Bergara (2) (Inf)



MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA

EUSKAL HERRIKO KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SESTEEM

(Hobetuz-ek 100% subentzionatua)

PRESTAKUNTZA IRAUNKORRA/2002ko 1 go sellbilabetea

KREDITOAREN IZENA	ORDUAK	DATAK	ORDUTEGIA
Diseinua			
MAKINEN ELEMENTUAK	60	02/03/20 - 02/05/06	17:00-19:00
BISTAK ETA KROKISAK	40	02/03/20 - 02/04/25	19:00-21:00
BISTAK ETA KROKISAK	40	02/06/03 - 02/07/04	19:00-21:00
PLANOEN INTERPRETAZIOA	40	02/05/06 - 02/05/31	17:00-19:00
Fabrikazioa			
CNC FRESAN PROGRAMATZEA ETA GAUZATZEA	55	02/04/02 - 02/05/02	18:00-21:00
FRESATZEKO MAKINA KONBENTSIONALEKO MEKANIZATUA	40	02/04/02 - 02/04/29	18:00-21:00
CNC TORNUKO MEKANIZAZIOA	45	02/04/02 - 02/04/25	18:00-21:00
CNC FRESATZEKO MAKINAKO MEKANIZAZIOA	45	02/05/06 - 02/05/29	18:00-21:00
SARPEN BIDEZKO ELEKTROHIGADURA	40	02/05/03 - 02/05/31	19:00-21:00
HARI BIDEZKO ELEKTROHIGADURA	40	02/06/03 - 02/06/28	17:00-19:00
ARTEZTEKO MAKINA (REKTIKADORA) TANGENTZIALA	40	02/06/24 - 02/07/22	19:00-21:00
ARTEZTEKO MAKINA IREKTIKADORA ZILINDRIKOA	40	02/06/24 - 02/07/22	17:00-19:00
MEKANIZAZIO PROZESUAK	40	02/06/24 - 02/07/22	17:00-19:00
Mantenimendua			
OMRON AUTOMATAK	40	02/05/27 - 02/06/27	19:00-21:00
ELEKTROHIDRAULIKA	30	02/04/22 - 02/05/16	19:00-21:00
HIDRAULIKA	40	02/04/15 - 02/05/20	17:00-19:00
PNEUMATIKA ETA ELEKTROPNEUMATIKA	40	02/04/08 - 02/05/13	19:00-21:00
ROBOTIKA	20	02/07/01 - 02/07/16	17:00-19:00
Kalitatea			
METROLOGIA ETA KALIBRAZIO TEKNIKAK	50	02/04/22 - 02/05/27	18:30-21:00
KALITATEKO ERREMINTAK ETA KUDEAKETA	40	02/06/03 - 02/06/28	17:00-19:00
ISO 9000 (2000 BEFITSION)	40	02/05/06 - 02/05/31	19:00-21:00

115-11 •EUIZ

San Roke Auzoa, 1

20870 Elgoibar

Tel. 943 74 41 32

Faxa: 943 74 41 53

E-posta: imh@fmh.es

<http://www.fmh.es>

fONs

Euskadi



Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ	FARMAZIAK
15 Yudego	Yudego	IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
16 Yudego	Ibañez	FERNANDEZ, Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
17 Ibañez		ZABAIETA, Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
18 Bidasolo	Bidasolo	'eguercliko 2ak arte
19 Yudego	Yudego	OKINDEGIA 17 igandea Dofia Mercedes 19 asteartea Eizagirre
20 Fernandez	Fernandez	
21 Yudego	Yudego	

Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durangaideko enpresa baterako Hezkuntza Akademiarako Zuzen-dari Teknikoa behar da.
Erref: 71004/6.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Durangaideko lanpostu baterako soldatzaileo behar du.
Erref: 72790/2.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Eibarko lanpostu baterako elektrikaria behar du.
Erref: 72794/3.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Eibarko lanposi-u baterako elektrikario behar du.
Erref: 72796/3.

Durangaideko enpresa baterako sukaldaria behar da.
Erref: 72897/3.

Debabarreneko enpresa baterako retroeskabadorako gidaria behar da. Erref: 72946/4.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Debabarreneko lanpostu baterako esportazioetako administratzailea behar du.
Erref: 73025/2.

Urolo Erdiko enpresa baterako CNC fresadoraraka langilea behar da. Erref: 73427/2.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Durangaideko lanpostu baterako CNC tomularia behar du. Erref: 73503/3.

Durangaideko enpresa baterako Catia V5eko aditua behar da. Erref: 73668/1.

Durangaideko enpresa baterako esportazioetako komertziala behar da. Erref: 73919/3.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa baterako lan erriskuen prebentzio planetarako teknikaria behar du. Erref: 74187/3.

ESKAERA

36 urteko emakumea eskaintzen da lokalak garbitzeko edo adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. Carmen. sr 943 74 27 79 (goizean).

Emakumeak bere burua eskaintzen du orduka, egunero izan gabe, garbiketa lanak egiteko, v 943 74 22 01.

40 urteko emakume arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. 71. 678 38 35 61. Carmen

Mutil bat eskaintzen do kamarero lanetarako. v 943 74 37 94.

ESKAITZA

Sukaldariak behar dira udalekuan, uztailaren 2lik 14ra bitartean lan egiteko, Bidali curriculumak Elgoibarko izorrara. Ubitarte, 4.

Neska edo mutila behar da banoketa lanetarako. B1 gidabaimenorekin. zr 629 27 10 53

Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. w 687 04 32 55. (16:00etatik aurrera).

Karnareroa behar do, barran eta jangelan zerbitzeko. v 943 74 04 90.

Mehizitzak

Mendaron pisua salgai, Azpilikueta, 16an.vst 943 75 50 83.

Apurtamendua alokatzen da Torre viejan Aste Santurako, igerileku eta guzti. :zr 943 74 23 63. Rosa Maria,

"Buhardilla" salgai Errosario kalean. Bikote edo pertsona batentzako aproposa. Prezio onean. (18:00etatik aurrera).v 653 71 75 81,

Pisua erosiko nuke Sigman. v 606 15 80 22,

Pisua hartuko nuke abkairuen Elgoibarren. Premiazkoa da. v 943 74 32 17. Susana.

-i'Trms[:11211

Bikiak ibilizeko koixea salgai. Arrue markakoa. Prezio onean. 605 75 00 12.

Fiat Punto turbodiesel. Ri-chard. tr 639 17 29 25,

Opel Ascona autoa salgai. SS-X. Prezio oso interesgarria. 1r 686 22 44 38.

Ezkentzeko soinekoa safgai. Merke. (20:00efalik aurrera). v 943 74 33 88/ 943 68 33 70.

Ford Focus 1600 salgai. IDO zaldi. Zilar kolorea. 2 urte ditu. 20.000 km. Erabiltzen ez dudalako daukaf salgai. v 637 53 28 24. Amaia

Logefa salgai. Oso merke. v 600 235 509.

HP 3200 C eskanerra salgai, Egoera oso onean. Horrez gain, Lexmark Z 32 inprimagailua ere salduko nuke. 121:00 efalik aurrera). 17 600 79 14 40.

Partikularrak

o ingeleseko klase partikularrak ematen dira.v 605 73 95 34.

ingeleseko klaseak ematen dira Mendaron. v 943 75 52 09 / 943 74 29 84, Lorea.

o DBHko ikasieentzat klase partikularrak ematen ditut. Esperientzia daukaf.v 943 74 42 06.

Beellenall

Merkatu piazzako postuck traspasatzen dira. Prezio onean. vs: 943 74 10 07. (22:00etatik aurrera).

San Roke kalean, marixoaren 12an, haizeak praka bakero zabal batzuk eraman zizkidan. nr 943 74 29 30.

Markoaren 4cm, elizan poltsa bat azaldu zen. Barruan bi painolu, ispilu bat eta agenda daude. Galdu duena, meza orduetan ager dadila.

Mobil bai galdu dut. Siemens markakoa. zr 943 74 22 08.

Urre zurizko eraztun bat galdu dut, harri bilxi fxiiki batekin. Ion 11-03-01 dauka grabatuta. Aurkitu duenak Udaltzaingoa utzi dezala

Elgoibarko erdigunean pisa konpartitzeko pertsona bat behar da. 1r 943 74 82 72.(Bulegoko ordutegian).

Erretiratzeko dituzuen alitzartak jasoko nitzuke. Egoera onean badaude, hobe. zr 943 74 04 86.

o Txakurkurneak oparitzen ditut. Hila befe eta erdi dauzkate. v 630 93 10 93. Jabier.

Lekalak

Lokala alokatzen dut San Roke katean, Estudio, bulego edo trasterorako erabil daiteke.zr 655 73 89 56. (21:00etatik 22:30era bitartean deitu).

lazpibal

Garajea alokatzen dut Madolako etnetan. 19:00etatik aurrera deitu. v 943191165.

Garajea salgai Arregitorre kalean, Bi autorentzat lekua du. Prezio interesgarria.n2 943 74 00 09.

Garaie itxia salgai Olasoko Poligoan. Martin, tr 630 63 79 78.

Agurrak

Zorionak Ibai! Badakigu Euskadiko Txapelketan oso ondo gelditu zinala. Hurrengo urtian -eri irabaziko diozu eta, animo!

✓Zorionak Arri, enterau gera Euskadiko Txapelketan zazpigarrena-edo gelditu zinala. Aupa! Hurrengo urtian, maratoian korrika eilkeko prest.

agurrak



o Zorionak Jon, martxoaren 12an 4 urte bete zenituelako. Noraren, gurasoen eta aitixten partez.



o Zorionak Elorri, hilaren 16an 11 urte beteko dituelako. Ahizpa Nerearen eta familia-koen partez.



o Zorionak Eider, hilaren 16an urtebete egingo duzulako. Angel, Aner eta Kimetzen partez.



o Zorionak Sintzan, igandean 7 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, ahizpa Naiaren partez.



o Zorionak Rubio, hilaren 20an 11 urte beteko dituzulako. Segi orain arte bezalako jatorra izaten eta ea hemendik aurrera ganorazko jalorduak egi-tzen dituzun. Abuelita.



o Zorionak Andoni Arrillagori, mortxoaren 17an 6 urte beteko dituelako. Arreba Leire eta familiako-en partez.



o Zorionak Ion Zubiria Armentarizi, hilaren 11n urte-oxa egin zuetako. Gurasoen, aiton-omonen eta osal-ta-izeben partez.



*Zorionak nere Patuskiri. Ze moduz posa zenun zure egunian? Zure txikitako lagunaren partez. Ainhoo.



Zorionak Nekane Agirregomezkortari, hilaren 14an 3 urte bete zituelako. Etxekoan eta bereziki, Asierren partez.



Zorionak Jon Martinez, hilaren 16an 7 urte beteko dituelako. Gurasoen eto bereziki, Nerearen partez.



o Zorionak Karlos Gomez, gaur, martxoak 15, 5 urte-oxa bete dituelako. Varesaren eta gurasoen partez.



o Zorionak Leire Urzainkiri, hilaren 13an 4 urte bete zituelako. Familiako-en partez.



Zorionak Julen Perez Cortes 6. urtebetetzean. Musu handi bat familiako-en partez.



o Zorionak Julen zure 7. urtebetetzerm. Etxekoan eta bereziki, Nagoreren partez.



Zorionak Ehaui efa "Txope-ri, gaur, hilak 15 eta 17an urteak beteko dituztelako. Etxekoan eto bereziki, lbairan partez.

\$111gazte

informazioa

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea Kultur Etxean.
Bigurren solairuan. Tel. 943 741 461 Orclutegia:
Astelehena-asteartea- osteguna-ostirala: 17:00-20:00
larunbata: 10:00-14:00

BEKAK

Udalekuak (ingelesa)

Ingelese z garrakJtako udaleku batean parte hartzeko 800 lagunentzako deialdia egin da. Egonaldiak bi asteokoa izango dira eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak antolatatu ditu 2002ko uz-tailaren 28tik irailaren 8a arteko aldirako. Epea: apirilak 11.

Japoniako Gobernuaren beka

Japoniako Gobernuak hainbat beka eskaini dizkie Espainiako graduavei edo goi-mailako titulazio bohodide bat dutenei, ikasle ikertzaile gisa Japoniako unibertsitateetan ikasketak areagotzeko. 1968ko apirilaren 2tik aurrera jaiotakoentzat eta ingelesa ongi menperatzen dutenentzat. Epea: apirilak 1.

Arte Plastikoak

8 beka prestatu dira arte-sorkuntzaren esparruan proiektu pertsonalen prestakuntzari, etengabeko prestakuntzari, ingurune desberdinekiko harremanei eta komunikazioa izateko beharri erantzuteko asmoz. Prestakuntza-bekentzako. 23 eta 40 urte bitarteko adino izatea eskatzen da, eta ikerketa-bekentzako ez dago mugarik. Epea: maiatzak 17.

SARIAK ETA LEHIAKETAK

Argazki lehiaketa

de San Adrian" argazki lehiaketan, gehienez ere, 6 argazki, zuri-beltzeon edo koloretan aurkeztuko dira. Argazki-teknika desberdinak erabil daitezke. Gaia San Adrian izango da: bere hirigintza eta paisaiak, jaiak, jendea, Saria: 120 eta 60 euro, modalitate bakoitzerako. Epea: martxoak 22.

Musika-konposizio lehiaketa

Ingurumenaren eta naturaren kontserbazio eta babescrekiko herri-tarren sentsibilizazioa sustatzeko musika-konposizio lehiaketa, truriako Udalak antoiatuta. Bi modalitate daude: haur abestiak eta koru mistoentzako konposizioa. Saria: 1.800 euro, modalitate bakoitzeko. Epea: apirilak 25.

"Todos Somos Diferentes" Ipuin Lehiaketa

Tolerantziarekin lolutako idazlan onenak sarituko ditu Eskubide Zibil-en Fundazioak. Saria: 1. saria, 1.000 euro; 2. saria, 310 euro; 3. saria, 160 euro. Epea: apirilak 30.

IKASTAROAK

Nazioarteko III. Zinema Ikastaroa

Aragoiko Zinema Eskolak antolatutako ikastaroa, L'Espluga de Francoli (Tarragona) herrian izango da. Ikastaroak iroun arteon film bat egingo da. Interpretazioko eta Gidoi eta Zuzendaritzako taldeak egongo dira. Epea: apirilak 30 (erreserbaki eta ekaikin 30 tizen-ematea).

LANA

Administrazio-laguntzailea

Irurako Udalak administrazio-laguntzaile bat behar du (oposizio-lehiaketa) Eskola Graduata, LHleko titulua eta 3. hizkuntza-eskaki-zuna eskatzen da. Epea: martxoak 20.

Eszenatikoko arduraduna

Kursaal Elkarguneak Eszenatikoko Arduradun bat behar du. Lanpostua Jarduera Buruaren menpe egongo da, bi eszenatikietan (Auditorioa eta Garthara Aretoa) egiten diren ikuskizun eta kontzertuen antolamendu, zuzendaritza eta koordinazioaz arduratuko da. Epea: martxoak 16.

BOS

Bilboko Oskesira Sinfonikoan sartzeko entzunaldi edo audioak, instrumentu desberdinentzat. Epea: maiatzak 17.

Zerbitzu Anitzetako langilea

Casedako (Nafarroa) Udalean Zerbitzu Anitzetako langile bat kontratatzeko oposizioa. Eskola Graduata, Lehen mailako Lanbide Heziketako titulua eta B1 motako gidabaimena izatea eskatzen da. Epea: apirilak 3.

Kontuhartzaile-Diruzaina

Zizur Nagusiko Udalean (Nafarroa) Kontuhartzaile-Diruzain bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Ekonomia Zientzietako edo Enpresa Zientzietako edo Zuzenbideko lizentziatu titulua izatea eskatzen da. Epea: martxoak 27.

agenda

15 BARIKAKUA

18:00 **ESKI IRTEERA ANDORRARA**
Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkartea

16 ZAPATUA

18:00 **KONTZERTUA**
Taldeak: "Upset" eta "100 hongo"
Gaztetxean
Dohainik

20 EGUAZTENA

19:30 **IRUNGO MUSIKA ESKOLAKO ORKESTRA**
Musika Eskolako Auditorioan

21 EGUENA

18:30 **HITZALDIA**
Gaia: "Haurtzaroko beldurrei aurre egiteko estrategiak"

Hizlaria: Iñaki Toledo, psikologoa
Kultur Etxean
Antolatzailea: Kalamua Herri Eskolako Gurasoen Elkartea

19:0(1 IKASTOLAKO D.B.H. IKASLEEN JAILADIA

Herriko Antzokian

22 BARIKAKUA

22:00 **ZINE-FORUM-A**

"Chocolat"

Hizlaria: Eskarne Larrinaga
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

22:15 I. Bereziartua Musika Eskolako Talde Instrumentalak

Musika Eskolako Auditorioan

22:15 KONTZERTUA

Taldea: Alboka Musika Folk Taldea
Herriko Antzokian

DEIALDIAK

Morkaiko Mendizale Elkartea

Morkaiko Mendizale Elkartek Errosario kalean duen lokalean obra egin behar duela-eta, aldaketa batzuk egongo dira eskaintzen dituen ohiko zerbitzuetan. Obrak irauten duen bitartean, Kultur Etxeko sotoan egongo dira, astelehen eta eguenetan, 19:00etatik- 20:30era bitartean). Bestalde, bazkideei faxa eta telefonoa ez dituztela erabili ahal izango adierazi nahi diete. Hala ere, e-mailak ohi bezala funtzionatuko du.

KONTZERTUAK

Parrokiako korua

Parrokiako Koruak martxoaren 23an, zapatuan eskainiko du hurrengo emanaldia San Bartolome parrokian. 19:00etako mezaren ondoren hasiko dira kantuan eta besteak beste, honako pieza hauek interpretatuko dituzte: "Hilda Jesus",


ZINE
kluba



"EN CONSTRIXCI(Th)"

Zuzendaria: Jose Luis Guerin.
Dokumentala

Bartzelonako txinatar auzoko eraikin zahar baten errauspena eta berri baten eraikuntza lanak kontatzen ditu dokumental honek. Hiru urte behar izan ditu Guerin zuzendariak esperimantal kutsua duen filma burutzeko. Bere helburua egunerokotastmaren erretratua egitea izan da, bere handitasun eta miseriekin. Ikusle eta kritika arrakasta lortu ditu eta denboraren joana, aldaketa eta eraikitzeke era eta modu ezberdinei buruz erreflexio bat egitera bultzatzen du. 2001eko Goya sarietan dokumental onenaren saria irabazi berri du eta Donostiako Zinemaldian Epaimahalaren sari berezia jaso zuen.



KARTELDEGIA

ELGOIBAR

Herriko Antzokian

"Ocean's Eleven"

15, barixakua: 22:15
16, zapatua: 19:30-22:15
17, domekia: 19:30-22:15
18, astelehena: 22:15

"2001 Despega como puedes"

Domokia: 16:30

"En Construcción"

(zine kluba)

21, eguena: 22:15

EIBAR, Unzaga

"Desde el infierno"

15, barixakua: 19:30-22:15
16, zapatua: 17:00-19:45-22:30
17, domekia: 17:00-19:45-22:30
18, astelehena: 19:30-22:15
19, martitzena: 19:30-22:15
20, egu. = 19:30-22:15

Rialto

"La Ultima Profeal"

5, barixakua: 19:31-22:15
16, zapatua: 19:30-22:15
17, domekia: 19:30-22:15
18, astelehena: 19:30-22:15
19, martitzena: 19:30-22:15

BERGARA, Novedades

"El hijo de la novia"

Kzapatua: 19:31-22:30
16, domekia: 17:00-19:30-22:15
18, astelehenad 7:00- 9:30-22:15

"andahar"

14, Eguena: 20:00 (Zine Kluba)

BARRENek ez da gona litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

JOKOAK

Areto jokoak Jubilatuen Biltokian

Jubilatuen Biltokiak areto joko jailadia antolatu du datorren astelehenerako (martxoak 18). Musa, tutea, briska, dominoa, seikoak... eta beste joko batzuk izango dira aukeran. Parte hartzea nahi duzuenok, zuen izenak zuzendaritzan eman beharko dituzue, astelehenetik ostiralera, goizeko 10:30etik 12:00etara. Irabazleak eskualdeko bigarren fasera pasatuko dira.

KIROLAK

Igeriketa ikastaroak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu Olaizaga kiroldegian. Ikastaroak haur eta helduei zuzenduta daude eta apirilaren 8an emango zaie hasiera. Ikastaroetan parte hartzeko Olaizaga kiroldegian eman behar da izena martxoaren 25etik apirilaren 4ra bitartean,

Squash eta frontoi txikia

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazten du 2002 urteko bigarren trimestrerako Olaizaga kiroldegiko Squasha edo frontoi txikia erreserbatzea nahi dutenen artean, martxoaren 2 lean, arratsaldeko 19:00etan, Olaizaga kiroldegian, egingo dela ordutegien zozketa

JAIALDIAK

Elgoibarko Ikastolaren jaialdia

Elgoibarko Ikastolak datorren ostegunerako, martxoak 21, jaialdia antolatu du Herriko Antzokian. DBHko ikasleen jaialdia izango da. 14:30ean Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleentzat antzetzuko dute eta arratsaldeko 19:00etan, nagusientzat.

OSPAKIZUNAK

49ko Kintoen bazkaria

Bihar, martxoaren 16an, 1949ko kintoen eguna ospatuko da. 13:30ean hildako kintoen omenezko meza egingo da San Pedroko ermitan. Meza Carlos Agirre Garagarzak emango du, 1949ko kintako kidea bera ere. 14:30ean anaitasun bazkaria egingo dute San Pedroko Arrillaga erretegiaren.

ONITORAK

Nagusien Tanborradarako deialdia

Aurtengo Trinitate Jaietan, maiatzaren 25ean, hain zuzen ere, nagusien tanborrada egiten jarraitzeko asmoa dago. Hori dela eta, bertan parte hartzea nahi dutenen bilera, martxoaren 21ean, ostegunean, izango da Kultur Etxean 19:30ean. Antolatzaileek tanborradan parte hartu nahi duten neska mutil guztiak animatu nahi dituzte, elgoibartarrak naiz beste herriren batekoak izan. Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 676 54 75 24 telefonora.



"OCEAN'S ELEVEN"

Zuzendaria: Steven Soderbergh.

Antzezleak: George Clooney, Brad Pitt, Julia Roberts.

Zein da plana? Las Vegaseko 3 hotel-kasinetan lapurreta egitea. Zeinek asmatu du plana? Danny Ocean (George Clooney) lapur profesionalak. Zein da kasinoren jabea: Terry Benedict (Andy Garcia) elegantea. Zenbat dirutaz ari gara hitz egiten? Bellagio hotelaren ganbara korazatuan gordeta dauden 163 milio dolarretaz. Segurtasun neurriak sinestezinak dira, baina lapur koadrilaren dohaiak eta trebezia ez dira makalak. Desafioa botata dago, nor aterako ote da garaile?

N



A


ste honetako erretratua **Isidro Juaristik** laga digu. 1960. urtean atera zuten, Irukurutzetako Egunean. Festa honetan, inguruko herrietako tabernariak (Soraluze, Osintxu, Elgoibar...) **biltzen ziren** Irukurutzetan. Mahaiak eta beharrezko guztiak eramaten zituzten. Noski, ardorik ez zen falta izaten. Erromeria egin ohi zen bertan. Gainera, beste Iekueta ez bezala, agarraua edo "chilee meneoa" dantzatzen lagatzen

zutenez, egun zoragarria igarotzen zuten. Izen handikoa zen inguruetako herrietan Irukurutzetako erromeria. Hauek dira erretratuan agertzen direnak, ezkerretik eskumara: Ezkerreko mutil gaztea (ezezaguna); **Pedro Juaristi "Artazo"** (t), **Juan Francisco Txurruka "Orraindi"** (t), **Isidro Juaristi "Argin"**, **Eulogio Arizmendi "Untzon"** (e), **Victor Zubizarreta "Otxortia"** () eta **Sebastian Arizmendi "Untzon"** (t).



ESKERTZA

2002ko otsailaren 26an, 69 urte zituela hil zen **JOSEFA AZKUNE EIZAGIRRE**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



L bere garren diskaren kez ena



Folk musika taidea

"Lorius" bere hirugarren lan honetan abesfi tradizionalak zein itxura berrikoak era harrigarrian uztartzen asmatu dute.

2002ko urtarrilean mundu mailako zeltiar musikako jaialdi ospetsuenean, Glasgow hiriko Celtic Connections jaiaidian, arrakasta izugarria lortu dute.

Anto atzafiak



Foru Aldundia



Euskara saila

Martxo 9tik 22, ostirala
gaueko 22:15ean
Herriko Antzokian

floritaidiroko sarrerak aums eica daitszke Kulikr Eixern, Noferron Plazo 3, Tel 943 744 344 Goizez 71Kileta6lk 111301~16115, 16 euro.

1 TecniFuelle

FABRIKAZIO PROGRAMA

Hauspnak: Termosoldatuak, itsatsiak, zirkularrak.

Biribilkagailuak: Kaxadunak eta kaxa gabekoak.

Aluminiatzko pertsianak: Aluminio estruitua

Babesgailu espiralak: Malguki-altzairua eta altzairu herdoilgaitza.



Datu gehiago nahi izanez gero, eska ezazu gure katalogo orokorra.

TecniFuelle S.A.

Itziarko Poligono industrialean, E-1
Telefonoa +34 943 60 63 10
Faxa +34 943 19 92 98
E-mail: comercial@tecnifuelle.com
20820 DEBA G1PUZKOA



**BRONCES
GARITANO, S.A.**



MATRIZEGINTZARAKO
ELEMENTU NORMALIZATUAK



MATERIAL
EZ-FERRIKOAK

**MATRIZEGINTZARAKO
MALGUKIEN eta NITROGENOZKO
ZILINDROEN INPORTATZAILEA**



BORDIGNON



MATRIZEGINTZARAKO KROMO
BANADIOZKO MALGUKIAK



NITROGENO ZILINDROAK

**OLASO KALEA, 15 . 127 Postakutxa • 20870 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
Tel. 943 74 41 25 - 943 74 41 26 • FAX: 943 74 41 55**